

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos eta Urkullu Lehendakariak Nafarroa eta EA Eren arteko harremanak sendotzea adostu dute

Bi administrazioetako ordezkariak jadanik elkarlanean ari dira zenbait gaietan, ETB Nafarroan ikusi ahal izatea edo hitzarmen ekonomikoak elkarrekin babestea, esaterako

Viernes, 25 de septiembre de 2015

Nafarroako eta EA Eko Lehendakari Uxue Barkos eta Iñigo Urkullu Iruñean bildu dira bi autonomia erkidegoen eta haien erakundeen arteko harremanak sakondu eta indartzeko helburuarekin. Hainbat gai jorratu dituzte, esaterako: autogobernua, euroeskualdea, Estatuarekiko harremanak, Euskal Telebista ikusi ahal izatea, hizkuntz politika edo segurtasuna; hori guztia herritarren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz. Bi administrazioetako ordezkariak jadanik elkarrekin lanean ari dira gai horietako batzuetan.



Barkos Lehendakaria Urkulluri harrera egiten.

Barkos eta Urkullu gustura agertu dira bilkura honengatik; bi aldeek elkarrekin lan egiteko borondatea erakutsi dute jadanik lankidetzahitzarmen batzuk bazituen harremanak indartzeko, eta elkarrekin lan egiten jarraitzeko beharra dagoela adierazi dute hainbat gaitan: azpiegituretan, hezkuntzan, osasunean, suspertze ekonomikoan, segurtasunean eta beste arlo batzuetan.

Berriaz aztertutako bi gai, ETB Nafarroan ikusia ahal izatea eta mugaz gaindiko lankidetzak dira, Akitaniarekin eratutako euroeskualdea, zehazki. Azken gai horri dagokionez, Barkos Lehendakariak Nafarroa bertan sartzeari buruzko hausnarketa egiteko beharra dagoela adierazi du, alde guztien artean egin beharrekoa. ETB ikusi ahal izateari dagokionez, Iñigo Urkulluk nabarmendu du arazoa ez dela inoiz kostu ekonomikoa izan, alde tekniko eta prestutasun politikoa baizik. Alde horretatik, bilerako protagonistek azpimarratu dute gai hori konpontzeko gaur egun borondate politikoa dagoela gaur egun, Nafarroako Parlamentuaren mandatu bat du, gainera.

Biek ala biek azpimarratu dute, halaber, hitzarmen (Nafarroa) eta kontzertu (EAE) ekonomikoen negoziaketan Estatuaren aurrean babes bateratu bat egitea komeni dela.

Kazetarien galderei

erantzunez, Barkos Lehendakariak Urkulluk Eusko Legebiltzarrean egindako foru-soberaniaren proposamenari ongietorria eman dio. Alde horretatik, adierazi du soberaniak esan nahi duela herritarrek beren etorkizunari buruz erabakitzeke aukera izatea. Urkullu lehendakariak Espainiako estatuaren barneko garai politiko bat iragarri du, elkarrekin lan egitea eskatzen duena, eta konstituzioaren erreforma jakin batzuen aurrean beren izan behar dena.

Barkos eta Urkullu Lehendakarien bilera eta haren ondorengo prentsurrekoa 35 hedabidetako 69 kazetarik jarraitu dute.



Barkos Lehendakariaren bulegoan egindako bilera.

Galería de fotos



Elkarrekin egindako prentsurrekoa.



Prentsurrekoan zeuden hedabideak.